

JEAN LOUIS DAVANT.—*Iparraren bila*. Euskal Literatura. Elkar.  
Donostia, 1986.

Erromantiko kutsua nabari zaio Davanten lehen eleberri honi. Irudimenez, bere burujabetasuna hartu duen Zuberinoa herri tipian kokatzen gaitu eta auzo urrunaren aurka, basa gerla batean sartzera doa, funtsezko arrazoirik gabe dirudienez. Iraultza garaian jokabide susmagarritzat begiko hartu zutenari egunkari salagarri bat bilatu diote eta hortik datoz arazoak. Horren ondorioak ematen dio argudioaren mamia eta aski ongi eramana da.

Zuberotar idazle honen literaturgintza interesgarria da gure giroan.

\* \* \*